


LEHEN HEZKUNTZAKO 2. zikloa: IPUIN SARITUA

ETXE SORGINDUA. Aritz Lekunberri Razkin

Bazen behin ehun biztanleko herri txiki polit bat. Herri horren ondoan, basoaren erdian, etxe sorgindu bat zegoen. Sorgindua omen zegoen, norbait basoko etxe horretara joaten zenean ez zelako itzultzen.



Josuren aita basoko etxe sorgindura joan zen jendearekin zer gertatzen zen jakiteko. Josuren aita ez zen itzuli eta Aritz, Kimetz eta Josu bere bila joan ziren. Basajaunen etxera joan ziren galdetzera zer egin behar zuten etxe sorginduan desagertzen ziren pertsonak salbatzeko. Basajaunek esa zien:

—Etxe sorginduko sotora jaitsi beharko duzue, kable gorria moztu eta etxeak eztanda egingo du. Desagertuko pertsonak agertuko dira. Baina kontuz, urdina moztuz gero zuek desagertuko zarete eta.

Etxe sorgindura heldu zirenean etxeke atetik sartu ziren. Ateak aho bat zirudiela konturatu ziren. Sotoan argiak piztuta zeuden eta Aritzek ikusi zuen paretan aztarnak zeudela. Baina ez zuten kable gorri edo urdinik aurkitzen.

Sotoko lurrean, Josuk atetxo bat aurkitu zuen. Kimetzek atea zabaldu eta eskailera asko ikusi zituzten. Jaitsi ziren eta kable gorria eta urdina ikusi zituzten. Elkarri begiratu zioten, pozik, eta kable gorria moztu zuten. Etxeak eztanda egin zuen eta desagertutako pertsona guztiak agertu ziren. Josuk bere aita besarkatu zuen eta ordutik aurrera denak pozik bizi izan ziren.